

Euskal AEko biztanleko BPG handiena duten 10 udalerrietatik 7tan industria-jarduerak dira nagusi

Zamudio, Ajangiz eta Olaberria dira zerrendako buruak

Euskal AEko biztanleko BPG handiena duten 10 udalerrietatik 7tan industria-jarduerak dira nagusi, Eustaten datuen arabera. Gainera, 10 horietatik 4 udalerri Bilbo Handia eskualdekoak dira eta, kasu honetan, *Zerbitzuak* sektoreak du pisu garrantzitsua, Zierbenaren kasuan izan ezik; bertan, industria-sektorea gailentzen da (% 77,4).

Zamudio udalerriak du, Bizkaiko lurralde historikoan, Euskal AEko biztanleko Barne Produktu Gordin (biztanleko BPG) altuena 2015ean. Bigarren eta hirugarren postuan daude, hurrenez hurren, Ajangiz eta Olaberria udalerriak, lehenengoa Bizkaian eta bigarrena Gipuzkoan. Araban Berantevilla da biztanleko BPG handiena duena, eta zortzigarrena da Euskal AEko zerrendan.

1. taula. Biztanleko BPG altuena (eurotan) izan duten Euskal AEko udalerriak eta horien banaketa 4 sektoretan (%). 2015

BIZTANLEKO BPG			SEKTOREKAKO BANAKETA (%)			
LURRALDE EREMUA	Biztanleko BPG	INDIZEA ¹	NEKAZARITZA, ABELTZAINNTZA ETA ARRANTZA	INDUSTRIA ETA ENERGIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
C.A. Euskadi	31.519	100	0,8	24,3	6,0	69,0
Araba/Álava	34.785	110	1,7	32,8	4,9	60,7
Bizkaia	30.344	96	0,6	19,2	6,3	73,9
Gipuzkoa	31.927	101	0,6	27,8	6,0	65,5
Vitoria-Gasteiz	33.339	106	0,2	27,5	5,4	66,9
Bilbao	31.297	99	0,0	4,4	5,3	90,3
Donostia / San Sebastián	37.229	118	0,1	5,2	5,2	89,5
1 Zamudio	367.196	1.165	0,1	47,0	2,6	50,3
2 Ajangiz	220.883	701	0,9	84,2	0,2	14,6
3 Olaberria	213.004	676	0,2	78,9	0,2	20,6
4 Loiu	180.147	572	0,2	21,4	4,9	73,4
5 Izurtza	162.015	514	0,4	85,2	0,9	13,6
6 Zierbena	160.803	510	0,6	77,4	0,8	21,2
7 Etxebarria	150.849	479	0,9	90,3	1,6	7,3
8 Berantevilla	139.629	443	5,9	72,5	3,8	17,7
9 Aduna	122.504	389	0,7	51,7	6,5	41,0
10 Derio	119.547	379	0,2	15,6	6,7	77,5

¹ Kokalekua, Euskal AEko balioarekin alderatuta (=100)

Iturria: Eustat. Udal BPG

Udalerri bakoitzaren sektore-banaketari dagokionez, Zamudion antzeko pisua dute *Industriak* (% 47,0) eta *Zerbitzuak* (% 50,3), biak Parke Teknologikoaren enpresa-jarduerari lotuta. Aipatzekoa da, gainera, Ajangiz eta Olaberria udalerrietan *Industria* sektoreak duen pisu garrantzitsua; % 84,2 eta % 78,9, hurrenez hurren. Hala ere, Loiu udalerrian, biztanleko BPG zerrendaren laugarren postuan, aurreko biek alderatuta, *Zerbitzuak* sektoreak pisu azpimarragarria du bere ekonomian (% 73,4).

Hiru hiriburuei dagokienez, Donostia dago zerrendaren buruan 2015ean, eta Euskal AEko biztanleko BPGri dagokionez posizio erlatiboaren indizea 118koa da, hau da, biztanleko BPG Autonomia Erkidegokoaren batez bestekoa baino % 18 handiagoa da. Vitoria-Gasteiz 106ko indizea du eta Bilbo zertxobait beherago dago, 99ko indizearekin.

Bilbon eta Donostian BPGren % 90 inguru *Zerbitzuak* sektoreak sortzen du; aldiz, Vitoria-Gasteizen *Zerbitzuak* sektorea % 67an kokatzen da. Ildo horretatik, Vitoria-Gasteizen *Industria* sektorearen ekarpena nabarmen handiagoa da (% 27,5), Donostiarekin (% 5,2) eta Bilborekin (% 4,4) alderatuta.

2. taula. Euskal AEko hiriburuen Balio Erantsi Gordina (BEG), jarduera-sektoreen arabera. Uneko prezioak (milaka euro).

	Bilbao			Donostia / San Sebastian			Vitoria-Gasteiz		
	2015	2014	Δ%	2015	2014	Δ%	2015	2014	Δ%
Guztira	9.720.819	9.473.546	2,6	6.072.903	5.910.054	2,8	7.235.838	6.988.516	3,5
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	2.798	2.931	-4,5	3.916	4.187	-6,5	14.640	14.214	3,0
Industria eta energia	425.157	481.230	-11,7	318.748	321.037	-0,7	1.990.295	1.874.685	6,2
Eraikuntza	510.474	502.387	1,6	317.269	324.554	-2,2	389.074	380.866	2,2
Zerbitzuak	8.782.390	8.486.998	3,5	5.432.970	5.260.276	3,3	4.841.829	4.718.751	2,6
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	2.094.418	2.086.675	0,4	1.219.264	1.156.379	5,4	1.298.942	1.268.633	2,4
Herri administrazioa, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	2.012.999	1.962.164	2,6	1.615.649	1.606.835	0,5	1.535.697	1.513.182	1,5
Gainerako zerbitzuak	4.674.973	4.438.159	5,3	2.598.057	2.497.062	4,0	2.007.190	1.936.936	3,6

Iturria: Eustat. Udal BPG


Hiru hiriburuen Preziotako Balio Erantsiaren guztizko bilakaera 2015ean 2014 urtearekin alderatuta aztertuta, ikus daiteke hiruetan aldakuntza positiboa izan duela, eta Vitoria-Gasteiz da urte-arteko aldaketa-tasa handiena duena (% 3,5); ondoren daude Donostia (% 2,8) eta Bilbo (% 2,6). Sektoreei dagokienez, *Zerbitzuak* sektorea da Preziotako Balio Erantsian pisu handiena duena eta hiru hiriburuetan erregistratu du hazkunde. Hazkunde hori Bilbon (% 3,5), nagusiki, *Gainerako Zerbitzuak* sektoreak eman du (% 5,3), Donostian (% 3,3) eta Vitoria-Gasteizen (% 2,6) *Gainerako Zerbitzuak* eta *Merkataritza, ostalaritza eta garraioa* izan dira.

Eskualdeei dagokienez, Arabako lurralde historikoan daude biztanleko BPG balio handienak dituzten hiru eskualdeak; lehenengoa Arabar Errioxa da, Euskal AEaren batez bestekoarekin alderatuta 179ko indizea du. Eskualde horretan zerrendaburuak dira Guardia, 374ko indizearekin, Villabuena/Eskuernaga (276) eta Eltziego (187), eta *Industria* sektorea da (ardo-industriarekin lotutakoa) ekonomiaren motorea.

Arabako Ibarak (173) eta Gorbeiako Inguruak (135) eskualdeak dira lehenengo hiru postu horiek osatzen dituztenak. Laugarren eta bosgarren postuan daude, hurrenez hurren, Durangaldea (118), Bizkaian, eta Debagoiena, Gipuzkoan, 116ko indizearekin.

Aipatu behar da, eskualde horien guztien kasuan, Durangaldea eta Debagoienan izan ezik, *Industria* sektoreak guztizko balio erantsian duen portzentaje altua, % 55 inguru batez beste, Euskal AEko % 24,3arekin alderatuta. Aldiz, *Zerbitzuak* sektoreak pisu txikiagoa du, % 35 inguru, Euskal AEko % 69,0ekin alderatuta, Durangaldea eta Debagoienan izan ezik; horietan % 55,2 eta % 48,1ekoa da, hurrenez hurren.

1. grafikoa. Biztanleko BPG banaketa, eskualdeka. Euroak. 2015



Iturria: Eustat. Udalerrien BPG

Ohar metodologikoa:

2015 urteari dagokion Euskal AEko udalerrien BPGren argitalpen berri honetan, Eustatek, bost urtean behin egin ohi duen moduan, oinarri-aldaketa egin du (oinarria 2015) eta, beraz, oinarri-urte berrian definitutako marko metodologikoaren arabera egin du estimazioa. Oinarri-aldaketak esan nahi du informazio-iturriak eta estimazio-metodoak sakon berrikusi direla, eta horixe da estimazioak hobetzeko txertatu behar diren aldaketak egiteko unea.

Halaber, Kontu Ekonomikoen Europako Sistemak ezarritako irizpideei eutsi zaie (SEC 2010).

2015ko udalerrien BPG argitaratuta, 2015 oinarri hartuta, estatistika-operazio horrek urtekako izaera du. Era berean, datu-bankuan dago 2014 urteari dagokion informazioa eskuragarri. Aurreko serie historikoaren eguneraketa (1996, 2000, 2005, 2008, 2010 eta 2012 urteak), 2015 oinarri hartuta, aurrerago argitaratuko da.

Datuak interpretatzerakoan, udalerriaren BPG eta udalerriaren errenta bereiztu behar dira; BPG ekoizpenari lotuta dago, aberastasuna sortzeari, eta ekoizpen-establezimendu garrantzitsuak dituzten udalerrietan kokatzen da. Errenta, aldiz, pertsonen eta horien bizilekuari lotuta dago.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62